

LEPa eta Ordezlagunea

Atzo izan genuen sukaldari eta garbitzaileen mahai negoziatzailean plazen estabilizazio prozesuan eskainiko dituzten plazen gehikuntza ekarri zuten. Aurreko eskaintzatik birjartze tasen ondoriozko 18 plaza gehitu dituzte. 2021ean egon diren jubilazioak, ezintasunak eta borondatezko eszedentziak gehitu dituzte.

Administrazioak atera nahi duen plaza kopurua	LEPera	2021eko eskaintza	2022ko eskaintza	Guztira
Garbiketa		184	9	193 plaza jardun osoan
Sukaldaritza		256	9	251 plaza osoan 5 jardun erdian 9 %75eko jardunean
Guztira		440	18	458

Gauzak horrela, LAB sindikatuak jarraitzen du eskatzen lan metaketa kontratuen kopurua eskaintzara gehitzea, gure ustez 35 gehiago dira, eta plaza gehiago ateratzeko aukera dagoela. Behin behinekotasun tasa %8ra jaitea du legeak.

- IVAPa izango da LEPa antolatuko duen erakundea hezkuntza sailarekin elkarlanean.
- Maiatzean aurreikusten dute 2021eko abenduaren 31 arte emandako zerbitzuak ikusgai egongo dira Hezigunean. Langile bakoitzak ikusi ahal izango du bere zerbitzu orria eta erreklamazioak egin beharrezkoa balitz.
- Deialdiaren inguruan aipatu zituzten Madrilek ezarri dituen estabilizazio prozesuetarako jarraibideak eta Hezkuntza sailak hauen inguruan dituen asmoak.
 - Laneko esperientziak askoz jota %90a zenbatzeko aukera.
 - Hezkuntza sailean zerbitzuetako esperientzia (mugarik gabe)
 - Admistrazio publikoko esperientzia (mugatuta)
 - Merezimendu akademikoak gutxienez %10a zenbatzeko aukera.
 - Azkenengo Lep prozesua gainditzeagatik %5a
 - Euskara Hizkuntza eskakizuna izateagatik, PL1, beste 5%a

Puntuazioan berdinketa egonez gero proposatzen dute,

-Azkenego Lep prozesuan ateratako nota.

-Kolektiboan Zerbitzuak ematen hasi zen lehena.

-Abizenaren letra

Eskaintza eta deialdiaren zirriborroaren gainean lanean jarraituko dugu, ekarpenak egingo dizkiogu ahalik eta plaza eta kolektiboko langile gehien egonkortu daitezen.

Ordezlagunea

Sukaldari eta garbitzaileen kolektiboan ere Administrazioak ordezkapenak banatzeko Ordezlagunea martxan jarriko du 2023ko urtarrilean. LAB sindikatuan begi onez ikusten dugu erabakia, aspaldi eskatu baitugu. Ahalik eta azkarren martxan jartzea eskatzeaz gain, gaur egun ematen den egoera jasanezina eta konponbidea behar duela azpimarratu genuen. Ordezkaritzetan ordezkapen guztiak betetzeko baliabide gehiago jarri behar direla azpimarratu genuen.

Ordezlaguneak ordezkapenak banatzeko prozesuaren gardentasuna eta eraginkortasuna bermatuko du, zerbitzua eta langileen eskubideak bermatuz.

Eman diguten proposamena sakon aztertu eta ekarpenak egingo dizkiogu, gaur egun indarrean dugun ordezkoen araudia bete dadin eta hurrengo ordezkoen araudiaren negoziazioan oinarriak jartzeko asmoz.

Bestalde, dakizuen ez lan erreformaren ondorioz lan metaketa kontratuak ezin ezingo dira egin 6 hilabete baino gehiagoko iraupenarekin. Hezkuntza sailak gaur gaurkoz ez daki zein irtenbide emango dion kontratazioari, 6 hilabeteko kontratazioak ez baitio balio zerbitzua aurrera ateratzeko. LAB sindikatuak zerbitzua kalitatez emateko behar besteko bakante kopurak sortzea eskatu dio administrazioari.

Edozein zalantza izanez gero jarri gurekin harreketan

ANIMO ETA AURRERA !!

OPE y Ordezlagunea

En la mesa negociadora de cocina y limpieza que tuvimos ayer trajeron el incremento de plazas que van a ofrecer en el proceso de estabilización de las plazas. Desde la oferta anterior han añadido 18 plazas derivadas de las tasas de reposición, implementando el número de jubilaciones, incapacidades y excedencias voluntarias que ha habido en 2021.

Numero de plazas que la administración preve ofertar	Oferta de	Oferta de 2022	Total
Limpieza	184	9	193 plazas a jornada completa
Cocina	256	9	251 plazas a jornada completa 5 a media jornada 9 al 75% de jornada
Total	440	18	458

Así las cosas, el sindicato LAB sigue reclamando que el número de contratos de acumulación de tareas se debe ofrecer en la oferta, 35 por lo menos, y que también hay posibilidad de incrementar el número de plazas, puesto que la ley tiene como objetivo reducir la tasa de temporalidad al 8%.

- El IVAP será el organismo organizador de la OPE en colaboración con el departamento de educación.
- En mayo se prevé que los servicios prestados hasta el 31 de diciembre de 2021 estén visibles en Hezigunea. Cada trabajador tendrá acceso a su hoja de servicios para poder reclamar su corrección si fuera necesario.
- En torno a la convocatoria se mencionaron las pautas para los procesos de estabilización que ha establecido Madrid y las intenciones del Departamento de Educación.
 - Posibilidad de que la experiencia laboral compute como máximo el 90%.
 - Experiencia en servicios en el Departamento de Educación (sin límite)
 - Experiencia administrativa pública (limitada)
 - Posibilidad de que los méritos académicos se computen al menos al 10%.
 - 5% por superación del último proceso Lep
 - Tener perfil lingüístico de euskera PL1, otro 5%

Proponen en caso de empate en la puntuación, para desempate:

s.ingunza @lab.eus - 666 772 620

z.laboralakbizkaia@lab.eus - 666 771 235

z.laboralagipuzkoa@lab.eus - 666 779 317



- Nota obtenida en el última OPE.
- La primera persona que empezó prestando Servicios en el colectivo.
- Letra del apellido

Seguiremos trabajando sobre la oferta y el borrador de convocatoria, haciendo aportaciones para que se establezca el mayor número de plazas y personal del colectivo.

Ordezlagunea

También en el colectivo de cocina y limpieza la Administración pondrá en marcha Ordezlagunea, el sistema de reparto de sustituciones telemático, que está previsto para enero de 2023.. En el sindicato LAB vemos con buenos ojos la decisión, ya que lo hemos pedido hace tiempo. Además de exigir su puesta en marcha lo antes posible, insistimos en que la situación que se da hoy en día es insostenible y necesita una solución. Insistimos en la necesidad de poner más medios en las delegaciones para cubrir Ordezlagunea garantizará la transparencia y eficacia del proceso de reparto de sustituciones, garantizando el servicio y los derechos del personal.

Analizaremos en profundidad la propuesta que se nos ha facilitado y le haremos aportaciones con el objetivo de que se cumpla la normativa de sustituciones que tenemos vigente y se pongan las bases para la negociación de una nueva normativa de sustituciones.

Por otra parte, como sabéis, los contratos de acumulación de tareas no podrán hacerse con una duración superior a 6 meses como consecuencia de la reforma laboral. El Departamento de Educación desconoce hoy por hoy la solución que dará a la contratación, ya que 6 meses de contratación no le sirven para sacar adelante el servicio. El sindicato LAB ha pedido a la administración que cree suficientes vacantes para prestar el servicio con calidad.

Ante cualquier duda poneos en contacto con nosotras

ANIMO ETA AURRERA !!